

VITORIA-GASTEIZEN ADIERAZPENA INPUNITATEAREN KONTRA

Duela 40 urte, Vitoria-Gasteizko kaleak gorritz tindatu ziren Pedro M^a Martínez Ocio, Francisco Aznar Clemente, Romualdo Barroso Chaparro, José Castillo García eta Bienvenido Pereda Moralen odolarekin eta lan baldintza duinagoen alde, demokrazia eta askatasunaren alde borroka egin zuten beste ehunka kide eta lagunen odolarekin. Poliziek eragindako sarraski hura bizirik dago oraindik biktima guztien oroimenean, Vitoria-Gasteiz, Euskal Herria eta Espainiar Estatu osoaren oroimenean.

Garai hartan etengabeak ziren giza eskubide funtsezkoenen kontra eginiko erasoak: 75eko fusilatuak, Jurramendin erailak, 1976,77, 78 eta ondorengo urteetan manifestaldietan erailak, oposizio egiteagatik erailak.... horrek denak agerian utzi digu frankismoak bere amaieran erakutsi zuen ankerkeria. Gizateriaren kontra eragindako delituak dira, ezin dira preskribatu eta nazioarteko legeriaren arabera ezin dira amnistiapean zigor barik geratu. Baina, orduko erantzuleek Europar Batasun osoan bakarra den inpunitatea gozaten dute eta inpunitate hau bereziki dramatikoa da milaka pertsonen diktadura garaian fusilatutako eta bide bazterretan eta hobi komunetan lurperatutako senideak bilatzen jarraitzen duten Estatu batean.

Vitoria-Gasteizko sarraski hura gertatu eta berrogei urte geroago, frankisten epaimahaiak onartu nahi ez zituzten frogak Vitoria-Gasteizko Udalaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Legebiltzarraren eskuetan daude. Gizakiaren eskubideen Europar Epaitegiraino iritsi dira, Europar Kontseiluraino, Nazio Batuetaraino eta, azken aldi honetan, Europar Legebiltzarreraino ere bai. Erakunde hauetako batzuetan gertakariak eta biktimen aldarrikapenak aitortu dira, ordain ekonomiko batzuk ere eman dira. Baina egiari zor zaion babes juridikoa eta zigor eta erantzukizun politikoei dagokiena bete gabe dago oraindik, eta ez da izan aukerarik egon ez delako. Duela gutxi Espainiar Gobernuak Argentinako epaimahai bati eragotzi dio erantzule frankista talde bati ikerketa-deklarazio batzuk egiteko estradizio eskaera, gizateriaren kontrako krimen horien nazioarteko legeriaren babesean ikerkuntza ahalbidetuko zuena.

Arrazoi guzti horiengatik, orduko garai hartan justizia egitea eragotzi zuten inguruabarrak gaindituta, gaur egun sufritzen jarraitzen duten eta letra handiz idatzitako Demokrazia, Askatasuna eta Justizia, indarkeriarik gabe eta inpunitaterik gabe finkatzea besterik bilatzen ez duten biktimei Egia, Justizia eta Erreparazioa bermatzeko helburu bakarrarekin, idazki honen bidez aurkeztu nahi ditugu gure eskariak. Hauek dira erakundeei eskatzen dizkiegunak:

1. Konpromiso aktiboa pertsonen eta gizarte taldeen Giza Eskubideei eragindako edozein erasoren aurrean inpunitatea ahalbidetuko duen eragozpen politiko edo legal oro ezabatzeko.
2. Frankismo garaiko biktima guztiek merezi duten aitortza politiko-juridiko osoa, indarkeriaren eta Giza Eskubideen kontrako erasoen beste biktima guztiek dauzkaten eskubide berberak aitortuz eta tratu berbera emanez.
3. Gizateriaren kontrako krimenei aplikatu ahal zaien nazioarteko legeria, gorroto eta xenofobia delituak prebenitzeko europar erabaki markoak eta Espainiar Erresumak gai honetan izenpetu dituen nazioarteko akordioak osorik betetzea.
4. Nazio Batuen Errelatore berezia den Pablo de Greiffek bere azken Txostenean emandako gomendioak berehala aplikatzea, Justizia, Egia eta biktimei Erreparazioa bermatzeko eta ez errepikatzeke bermeak indartuaz.
5. Europa barruko eta nazioarte mailako agintarien arteko inplikazio sendoagoa, egoera honetatik irten eta aldaketa eragiteko Oroimen Historikoaren inguruko politiken europeizazioa bultzatuaz.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 1ean

MANIFIESTO DE VITORIA GASTEIZ CONTRA LA IMPUNIDAD

Hace 40 años las calles de Vitoria-Gasteiz se tiñeron de rojo con la sangre de **Pedro M^a Martínez Ocio, Francisco Aznar Clemente, Romualdo Barroso Chaparro, José Castillo García y Bienvenido Pereda Moral** y la de cientos de compañeros que luchaban por la mejora de sus condiciones laborales, por la democracia y por la libertad. Fueron masacrados en una actuación policial viva en la memoria de todas las víctimas, de la ciudadanía de Vitoria-Gasteiz, Álava-Araba, Euskal Herria y el Estado español.

Las violaciones de los más elementales derechos humanos eran entonces constantes: los fusilados del 75, los asesinados en Montejurra, decenas de manifestantes y opositores muertos y heridos durante 1976, 77, 78... acreditan la barbarie con la que el franquismo afrontó su final. Son delitos de lesa humanidad que ni prescriben ni pueden amnistiarse según la legislación internacional. Sin embargo sus responsables se benefician hoy de una impunidad insólita en la Unión Europea y especialmente dramática en un estado en el que miles de personas buscan aún a sus familiares fusilados durante la dictadura y enterrados en cunetas y fosas comunes.

Cuarenta años después de la masacre de Vitoria-Gasteiz las pruebas que despreciaron los tribunales franquistas obran en poder del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, la Diputación de Araba, y el Parlamento Vasco. Han llegado hasta el Tribunal Europeo de los Derechos del Hombre, el Consejo de Europa, las Naciones Unidas y últimamente al Parlamento Europeo. En algunas de esas instituciones han sido reconocidos los hechos y las demandas de las víctimas, incluso se han otorgado algunas reparaciones económicas. Pero el respaldo jurídico a la verdad, la depuración de responsabilidades penales y políticas que reparen del todo los daños causados, sigue pendiente y no por falta de oportunidades. Recientemente se ha impedido acceder a las peticiones de extradición de responsables franquistas para toma de declaración indagatoria a un Juzgado argentino que permita investigar estos crímenes de lesa humanidad al amparo de la jurisdicción internacional.

Por estas razones, superadas ya las circunstancias que impidieron entonces hacer justicia, sin otro ánimo que procurar verdad, justicia y reparación a víctimas que hoy siguen sufriendo, que solo desean consolidar una Democracia con mayúsculas, una Libertad con mayúsculas, una Justicia con mayúsculas sin violencias de ningún tipo, sin impunidad, pedimos a las todas las instituciones implicadas:

1. Un compromiso activo para eliminar cualquier impedimento político o legal que favorezca la impunidad ante cualquier agresión a los Derechos Humanos de personas y colectivos.
2. El pleno reconocimiento político-jurídico de todas las víctimas del franquismo, dándoles idéntico trato y reconociéndoles los mismos derechos que los que disfrutaban otros colectivos de víctimas de violencia y de agresiones a los Derechos Humanos.
3. El cumplimiento íntegro de la Legislación Internacional aplicable al tratamiento de los crímenes de lesa humanidad, de las decisiones marco europeas para la prevención de los delitos de odio y xenofobia y de los acuerdos internacionales al respecto suscritos por el Reino de España.
4. La aplicación inmediata de las recomendaciones del informe del relator de las Naciones Unidas Pablo de Greiff para propiciar justicia, verdad y reparación a las víctimas y fortalecer las garantías de no repetición.
5. Una más estrecha implicación de las autoridades europeas e internacionales para propiciar un cambio en esta situación y una europeización de las políticas de memoria histórica.

Vitoria-Gasteiz, 1 de Marzo de 2016